

**IKASTOLAK**



2005  
EKAINA

**Informatzen**

## ALDEZ AURRETIK ORDAINDUTAKO BAIMENA

### GOGORATU

2004ko Lan Hitzarmenean urte berezi baten baimena sinatu genuen **Partaide EIB eta LABek**. Baimena erabiliko duten langileek lau urtetan soldataren %84a kobratuz eta kotizatuz egon eta gero, bosgarren urtea berdin kobratuz eta kotizatuz ez dute lanera joan behar.

Zalantzak sortu ziren batez ere Gizarte Segurantzak hainbat egoerari emango zion trataeraz, horren aurrean Partaide, EIB eta LABek Gizarte Segurantzari galdera luzatu zioten. Erantzun horren zain egon gara “aldez aurretik ordaindutako baimena” gauzatzeko.

Gizarte Segurantzari egindako galderaren erantzun baikorra jaso dugu. Beraz orduan zeuden zalantzak argituta geratu dira. Heriotza, ezintasuna, arazo pertsonal zein laboral larriak ... gertatuz gero, langileen eskubideak ez dira murriztuko.

**Langileek baimen hau eska dezakete datorren ikasturteari begira.** Hau tramitatzen hasteko (Gizarte Segurantzari zein ordainketa eskuordetuan) ikastolan jakin behar dute uztailerako. Gu ere jakinaren gainean egotea komenigarria da.

Datorren astean LABeko delegatuek esku artean edukiko dute baimen honi dagozkion zehaztasun guztiak. Beraz zalantzarik baduzue, jo ezazue guregana.



**Bilbo.**Rekalde Zumd. 62-behea.KP:48010. Tlf.944706926.Post Elek.irakbiz@lab-sindikatu.org  
**Donostia.** Isabel II, 5-G solairua. KP: Tlf.943458562.Post. Elek. irakgip@lab-sindikatu.org  
**Gasteiz.**Bueno Monreal, 10-behea. KP: Tlf. 945258404.Post. Elek. irakara@lab-sindikatu.org  
**Iruñea.**Mercaderes, 25-1. KP: Tlf. 948210422. Post. Elek. iraknaf@lab-sindikatu.org  
**Baiona:**Marengo karrika,13. Tlf. 05595020. Post. Elek. baiona@lab-sindikatu.org